

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Oreka zalditegi terapeutikoa irekitzeko hainbat baliabide behar ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** lanerako baserria, zalditegia, ordenagailua, telefonoa, klaseak eta terapia saioak aurrera eramateko materiala eta baliabideak, zaldiak, zelaiak, belazea, pistak,...
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** lau bazkideek izugarrizko sentiberatasuna, enpatia, intuizioa, gizarte trebetasunak, zentzumen guztiekin entzuteko gaitasuna,...ditugu, bakoitza bere espezialitatean zentratuturik.
- **Finantza-baliabideak:** baserria, bere zalditegiarekin, bazkideetako batek herentziaz jaso du, eta gure aurrezkiak eta banketxeari eskatutako maileguarekin aurrera egin dugu proiektua martxan jartzeko.

